

Burusaioak Zuzenean



Unai Zugazua González

HITZAURREA



IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

14 URTEtik 25era BITARTEKO GAZTEENTZAT

Duela milaka urte esku batek markak egin zituen buztinean, eta Gilgameshen atsekabea adierazi zuen. Duela hainbat mende, Bernart Etxeparek euskarari kantatu zion tintarekin paperean idatziz. Iaz, Gas-teizko gazte batzuk ordenagailuaren aurrean eseri eta ipuinak idatzi zituzten. Funtsean, zirkunstantziak eta garaiak gorabehera, fenomeno bera: espiritua hegan ezintasun guztien gainetik.

Zalantza handiak izan ditut ipuin onenak aukeratzeko unean, batez ere "Lehen (eta azken) kronika" eta "Isiltasun burrunbatsua" izenekoen artean. Oso testu onak, biak ere. Azkenean, bai kasu honetan bai gainerakoetan, erabaki egin behar, eta... zein gogorra den erabaki beharra!

Bernardo Atxaga

Burusaioak zuzenean

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala. 2017 urtea
Diseinua eta maketazioa: Sinbait creaciones
Inprenta: Gráficas Ulzama



Unai Zugazua González, 18 urte

Bazkalostea

“*Begira ezazu zure ingurura, eta esaidazu borrelakoa den nabi duzun mundua...*” iristen zitzaidan ordenagailuko bozgorailuetatik nire historiako idazlana tekleatzen ari nintzen bitartean. Ezin dut, noizean behin, ordenagailuko pantailara begirada mugitu eta Iñakiren aerobik klase moduko mugimenduak kopiatzea ekiditu. Gaurkoan ere, Betagarriren 2004ko “Zuzenena” kontzertua aukeratu dut arratsalde luze eta entretenigarri honi hots banda emateko.

Eta hantxe nago, ohe gainean, nire eszenatokian dantzan. Orduan, kitarra soloetarako jartzen dudun posearen erdian, “txo, nola demontre iritsi zara hona, duela 30 segundu Francori buruz idazten ari bazinen?”. Eta segituan, nire begiek ikasmahaigainaren aurrean itsatsitako kartela irakurtzen dute, atsekabe sentitzen naizen bakoitzean bezala: “One day, or day one”. “Joder, Iñi, bada garaia, ezta? Hirugarren ebaluazioa, mutil, emon!” Baina, beste behin, nire bi potroek (nire guraso zein irakasleen arabera ohiko tamaina askogatik gainditzen dutenak) borondate indarrari borroka irabazi eta eta WatsApp-ari, Twitter-ari edo Youtuberi eskaintzen diet Primo de Rivera, Mola edo Dolores Ibarruriri eskaini beharko niekeen kolorea. Nire denbora libre, urri eta preziatu hori.

Hurrengo abestian, “*Martxoak 3, martxoak 3, martxoak beltza...*”. Eta nire erantzuna “Niri esango didazu, bada! Nirea bai martxoak beltza, alajaina!”. Eta WatsApp-era berriz: “Jesus, gaur ez naiz entrenamendura joango, ikasi beharra daukat eta.”, nahiz eta biok dakigun hori ez dela egia izatera hurbilduko ere. Noski, eta telefonoa esku artean dudala,

Andreari galdetuko diot EGAko azterketan zer moduz moldatu zen, Maitaneri bere belauneko lesioa nola dihoan, ah, eta Felix zoriondu behar dut! Hau burua hau...

Hostia, Iñi, berriz ere. Dagoeneko ez duzu gogoratzen zelako uda pasa zuen Urtzik 3 urrirako utzi eta gero? Ez zaitetz egoera horretara iritsi, gero! Ea bada, saia gaitezen berriz: "...Hortaz, 1921eko Annualeko gudan bizitako sarraskia zela medio...". Baina, nahi gabe, hurrengo abestiaren letra idazten hasi naiz : "*Lagun baten etxean elkartu gara, gu gara gau honetan jabe bakarrak, bihar arte daukagu egiteko farra...*" eta idatzitakoa boligrafotik zehar, nire besotik eta lepotik igo eta garunean zera islatu zait: Farra beharrezkoa da. Bai, bai. Behar-beharrezkoa. Zertan egongo ote dira festarik ez dutenek? Bere festa propioak izango ote dituzte, hor nonbait? Azken finean, festarik ez baduzu, nahi ez duzulako izango da. Dena den, ikastolan zein beste edozein konpromesu guztietan egin beharrekoa egiten dutenek, nola ez dute bere askatasunaz gozatuko? Non egongo zara larunbat batean, goizeko 2:00etan, kaleko zoramenean ez bazaude? Lo egiten? Bai zera, bizitza motzegia da denbora gehiegiz atseden hartzeko. Nola, bestela, botako duzu aste osoan zehar gainean hartutako zama guztia?

Honen kontura, Malenak, behin, etxe azpiko Sarradi tabernan azaldutakoa erreparatzen hasi naiz, lenguko teoria balitz bezala. "Malen"-en (bakarrik bere lagunentzako talde selektiborako) arabera bizitzako egun bakoitza festatzen hartzea zen gakoa, modu horretan, egun guztiak jai egunak izango lirатеke, eta horrek momentu guztietaz gozatzeko

aukera eskainiko liguke. Asko mintzen nau Malen mozteak, hain alaitsu eta adoretu kontatzen baititu bere teoria xeble guztiak... Baina hori moztu beharra nuen:

- Baina, Malen, egun guztiak jai-egunak balira, ez lirатеke jai-egunik egongo, "egunak" besterik gabe, ezta?
- Joe, Iñi, zu beti gauzei buelta ematen. Batzuean zein tontoa, eta besteetan, aizu, begira gure Nietzsche madarikatua non berraragitu zaigun.
- Txo, ni Citioko Zenonen jarraitzaile sutsua naiz, eta nire filosofo ikuspegiari erreparatuz, arnastu baino gehiagorik egingo ez dugun egunak beharrezkoak direla uste dut, olgeta egunei benetako balioa eman diezaiegun.
- Hara bestea! Gauza horiek nabaritzen dira. Zeozerk pozten zaituenean, zeozerk hori zer den badakizu. Ez dakizu zergatik, baina hala dela badakizu, ez duzu erreflexio egunik behar, filosofito!
- Hortaz, modu batean, badakizu arrazoia ez dakizulako? - flapatzen nengoen.
- Alajaina, eta horrexegatik gainera, arrazoia ez jakiteagatik. Horiek dira gauzarik honenak. Azalduezinak.
- Ba nik badakit gauza bat, zurekin dantzatu nahi dudala, bazatoz? - nire eskumako besoa eskainiz.
- Goazen, bada! - eskuin eskutik heldu zidan. - Eh, baina ez dezagun ahaztu: farra beharrezkoa da – eta baiezkoa egin genuen biok, nahiz eta ezer ez esan.

Eh, eta badakizu zer gehiago den beharrezkoa, Iñi? Gainditzea! Utzi zure buruko xelebrikeria horiek, hartu boligrafoa, eta ekin!

Baina, bapatean, sukaldetik kanpai hotsak:

- Iñigo, afaltzera! - nire aita etxeko beste puntatik oihuka

Uffa, burua argitzeko behar nuena: tripa bete. Afaldu eta gero jarraituko (edo hasi, behintzat) dut (zer tipikoa, ezta?).

Afalostea

Gaueko 23:00. Berriz lanera.

Ez dakit zeozer izango ote dudan buruan, baina, baliteke, torlojuren bat burutik erori izana. Zenbat daramat 200 hitzetako lan ziztrin bat idazteko? 3 ordu? 4? Ez dut ordua begiratu nahi ere egin. Baina hau gaur bertan bukatu beharra daukat. Aski da! Musika out! Bueno... baxuago jartzearekin efektu bera lortuko dut... Ea bada, orain bai. Lanera.

Baina lehenengo hitza idatzi eta musika baino ez nuen entzuten. Entzuten eta idazten. Entzuten, idazten eta abesten. Entzuten, idazten, abesten eta jotzen. Konpas batetik bestera liburuak danbor bihurtu ziren, koadernoak bunbal, eta lanpara txindata. Momentu batean ikasmahaia bateria bilakatu zen, kontzertuko “sola” jotzen nuen bitartean, ordenagailutik baxu-baxu baina barruan 100 dezibelioetan entzuten nuen abestiaren erritmoa markatuz: “*Eta zu, beti pentsatzen zaitut, hostoen erortzean, loretan, denetan...*”. Segituan, izen batek eta zifra batek eztanda egin zuten nire buruaren kontra: Malen eta 74. 74 egun Malen ikusi gabe. Malen.

Dantzatzer atera nuenean ezagutu nuelaren susmoa dut. Sarradi tabernan uste dut izan zela, horietako gau filosofiko batean. Barruak ateratzen dituzun horietako batean. Lehendik ere ezagutzen nuen Malen, gela kidea baitzen. Ni bezala farra, patxango eta ligoteo non-stop taldekoa zen. Batez ere azken honetakoa. Talde horretako bi izarrak ginen. Gu bai talde aparta. Kendu daitezela Messi eta Neymar edota Gasol anaiak. Larunbatero partidua irabazteko amorruekin ateratzen ginen. Eta halaxe egiten genuen. Berak pasea eta nik gola sartzen nuen. Edonondik sartzen nituen golak bere pasei esker. Eskerrez, eskuinez, boleaz, txilenaz... hori bai ikuskizuna. Baina gola sartu eta gero, hantxe bukatzen zen partidua niretzat. Arbitroak gola pitatu eta gero, berak begi bat kliskatuz agurtzen zidan eta nik gainditutako atezainarekin joaten nintzen etxera, badakizu, penalti batzuk botatzera. Ondoren, hurrengo astelehenean, ikastolan, partidua laburpena giten genuen biok, jokaldi honenak azpimarratzen.

Nik argi nuen. Ez nuen bere laguna soilik izan nahi. Ez zait “soilik” hitza adiskidetasunaren arloan erabiltzea gustatzen, adiskidetasuna gauza oso esanguratsua baita. Baina Malenen kasuan, lagun izatea motz geratzen zitzaidan. Berarekin ahalik eta gehien izan nahi nuen. Biok batera.

Hortaz, Sarradiko tabernariak Betagarriren “Euri tanta bakoitzean” abestia jartzean, aukea hori galdu ezin nuela baino ez nuen pentsatzen. Orduan, aulkitik altxatu, besoa luzatu eta “Bazatoz?” bat jaurti nion berak mila aldiz ikusita zuen pose eta begirada bera erabiliz. Baina ez zitzaion axola,

berak bazekien bera ez zela edonor, eta hainbestetan esaten ohi duen “Goazen bada!” batekin erantzun zidan, beti bezala, baina inoiz ez bezala bere eskuin begia kliskatuz. Eta gola.

Harez geroztik, 1 urte eta 8 hilabete pasa dira. Berak milaka ate ireki zizkidan: irakurtzeko eta idazteko zaletasuna, musikaz eta pelikuletaz gehiago gozatzeko gogoak, igandeak naturarekin partekatzea, bizitza arriskuz betetzea... Eta horrela ikastolara joan arte egon ninteke. Abenturazalea zen Malen, eta bere abenturan murgildu ninduen ni ere. Ez dut uste nik gauzaren bat irakatsiko nionik, zoragarria baitzen.

Noski, honek ere alde txarrak bazituen, hau ez dela Disney pelikula. Erlazio batean murgiltzen nintzen lehenengo aldia zen. Beste hainbat gauzetan ere nire lehenengo aldia izan zen. Horrelakoak ziren egunak Malenekin. Egunero hutsera salto egiten zenuen, eta, ondoren, lurrarekin noiz topo egin itxaron. Kontua da, handik aurrera futbolari botak denbora batez gorde behar izan nituela. Niretzat ez zen gehiegizko esfortzua suposatzen aurretik izan dudana “askatasun” hori murrizteak, arrazoia Malen bazen.

Baina, badakizu, denok daukagu norbait. Zure mundua hankaz gora jartzen duen pertsona hori. Nirea ez zen Malen, nahiz eta nire buruari behin eta berriz baietz esan. Niri Leirek egiten zidan “Crash”. 2014ko udalekuetan ezagutu genuen elkar, eta baita ezagutu baino gehiago ere. Zangozatarra zen, txokolate eta Iron Maiden zalea. Nahikoa nire baba lurra uki ezan lotzeko. 2 aste horien bukaeratik ez nuen berrito ikusi. Eta bera ikusi gabe pasatzen zen egun bakoitza panpoxagoa ikustea, umeresuagoa gogoratzea eta bera ikusteko irrikek gora egitea suposatu zuen.

Ba, hantxe, ostegun zoro hauetako batean, hara eta nor zegoen gin-kas kubata eskuan barre algaraka alde zahar erdian. Inoiz baino panpoxago eta inoiz baino umoretsuago. Gau osoa pasa genuen elkarrekin istorioak gora, istorioak bera, gin-kasak barrura, euroak kanpora. Auskalo non zegoen Malen, ez zitzaidan axola. Leire nuen nire ile kizkurra laztantzen. Ez dakit ginebraren efektua izan ote zen, ala hori da pentsatu nahi dudana, baina futbolaria nintzela gogoratu nuen berriz, hori ez baita hain azkar ahazten. Botak berrito jarri nituen, hori ez baitzen ligako azkenengoaren kontrako partidua. Champions Leagueko finala zen hori, eta finalak, jakingo duzue, irabazteko daude. Ba, bai, finala irabazi nuen gau hartan, bizpahiru gol sartuta, baina baita Malen galdu ere.

74 egun pasa dira dagoeneko. Eta oraindik ere, logelan eserita, Franco niri begira, oraindik ere, egun bakoitza kontatzen dut, gertatutakoaz damutu bitartean. Nire bizitzako partidurik zailena. Joder, Iñi.

Zailena ez da ahaztea. Mindu gabe gogoratu ahal izatea baizik.

Gauerdiostea

Egun berri bateko goizeko 2:27ak. Hemen jarraitzen dut, liburuari begira. Ez dut ezta arkatza hartzeko imintziorik egingo. Nire burmuinak eta biok oso ongi dakigu ez gaudela esfortzu handirik egiteko prest. Arratsaldeko 18:00etan hasi naiz, eta 40 hitz idazteko ez naiz gai izan. Ikasmahaian dena hilda dago dagoeneko. Musika da bizirik dirauen bakarra. Musika kañeroa da benetan, Betagarriren kañeroetako bat dela esango nuke. Hala ere, egoera honetan, bibolin soinu

triste eta melankoniatsu bezala iristen zait: “...zenbat eta *gebiago formatu, hare eta gebiago zoratzen naiz...*”. Hau bai zoramena, bai. Abesti aldaketa behar dut. Baina hurrengoa ez dit onik egin ere: “*Tente, beti tente, beti aurrera, beti biltzen...*”. Liburuari begira geratu naiz. Hemen denak dirau tente eta beti aurrera. Dena hezkuntza ezik. Hezkuntza 100 urte hauetan zehar aldatu ez den gauza bakarra dela uste dut. Eta ez dirudi aldatzeko biderik hartuko duenik. Benetan espero dut nire etorkizuneko seme-alabek goizeko 2:00etan ikastolarako lanik egiten ez egotea. Joder, ikastea zaletasun bat izan beharko litzateke. Nork bihurtzen ditu ikasteko gogoak negar egiteko gogoetan? Nola egingo dute lo hezkuntza ministroek egin duten zapuzkeria ikusi eta gero?

Egia esan, ez dut gehiegi ikasten (dagoeneko jakingo duzuenez), baina noizean behin adi nengoen 15 minutuetako tarte horietako batean, 8 adimen motaz hitz egin zigun psikologiako irakasleak. Adi nengoen, bai. Baina ez hain adi zortzirak gogoratzeko, eta, noski ezta pentsatu apuntatzearena, mesedez. Azkartasun musikala, plastikoa, matematikoa, fisikoa... uff, nahikoa nire buruarentzat. Kontua da, oso argi ikusi nuela hezkuntzaren egungo plana bide okerretik zihoala. Adibidez, zergatik matematikako 4 ordu astero eta musikako 1, edota historiarako beste 4 eta heziketa fisikorako 2 baino ez? Zergatik eman diegu garrantzi gehiago adimen mota batzuei? Eta hau ez da txarrena, okerrena arlo hauekiko dagoen errespetu falta da. Nork esaten dizu matematiketan 10 bat izateak heziketa fisikoan edo musikan beste 10 bat izatea suposatzen dizunik? Historiako azterketarako 5 ordu sartu badituzu, kristoren

“empollada” dena, baliteke musikarako 10 ordu sartu behar izatea, lagun! Errespetua!

Bestalde, nik arloak botatzen ditut faltan. Hasteko, non dago nire emozioak ikertzeko, ulertzeko eta bideratzeko arloa? Nola gerta daiteke, azterketa baterako teoria goitik behera jakitea, baina lagun batekin izandako iskanbila batek buruko egonkortasuna apurtzea eta horrek zure buru guztia astoratzea, teoria guztia ahaztuz? Guk geuk bakarrik ikasi beharko dugu, edo zer? Bestetik, norbaitek sexuari buruz hitz egingo digu, ala esperientziaz ikasi beharko dugu? Norbaitek sustoren bat izan arte itxaron beharko dugu gauzak serioki hartzeko? Bah, eta horrela dena. Beti Berdin.

Gauzak ez daude ondo, ez.

Ikasiostea

Konturatu gabe, goizeko 6:07 dira. Eta zoragarri da denbora guzti hau aspertu gabe egon izana, nire burukerietan murgilduta. Nire saltsan. A zelako kontzertuaz gozatu behar izan duten nire barru guztiek.

Baina, bai, zirrargarria da, 18:00etatik 6:00etara ez naizela, ezta momentu batean, zein aspertuta nengoen pentsatzera gelditu. Baliteke aspertu ez naizelako izatea. Badakit oso filosofikoa dirudiela, baina noiz dakizu zenbateraino aspertuta zauden? Ba al daude asperraldi mailak?

Gaur egun aspertzea oso aspergarria da. Lehen ez. Lehen aspertzea dibertigarria zen. Ulertu nazazue, ez aspertuta zauden momentua, baizik eta ondoren, aspergarritasunaren bonbilla piztu eta ez aspertzeko, aspertzearen kontrako ideia

bururatzen zaizunean. Momentu horretan, ziztu bizian ekiten diot ez aspertzeari. Hori zen aspertzearen abantaila, aspertzeak ez aspertzeko gogoak ematen zizkizula, eta, kalera irten, zure lagun guztien etxera abiatu, elkarrekin mendira joan, txabola bat eraiki eta etxera 2 ordu eta erdi berandu iristen zinela. Eta hantxe, aspertu izateaz pozten zinen. Izan ere, bi arrazoi daude etxera berandu iristeko: lehenik, hainbeste gozatu duzula, non orduan pasa egin zaizun. Eta, bigarren, bahiketa baten biktima izatea. Eta zorionez, nire kasua lehenengoa zen. Horielik bai asperraldi dibertigarriak.

Baina, gaur egun, aspertu, eta gero, gehiago aspertzen gara. Egungo asperraldiek ez dute bonbillarik pizten, ezta kalera ateratzea bultzatzen, ez ezer. Gaurko asperraldiek eskua luzatzen dizute asperWhatsApp erantzuteko, asperTwitterra begiratzeko eta asperTuben bideoak ikusteko.

Besteek ez dakit, baina ni aspertuta ez egoteaz aspertu naiz, aspertuta egon nahi dut, geroago aspertuta ez egoteko.

Alarmaostea

RIIING!!! eta iratzargailuko abestia: “*Agur agur begi iluna, agur agur betirako...*”

Agur esateko ordua. Bueno, agur eta kaixo, beraz. Joder, eta duela 12 ordu nire helburua testua 5 minututan bukatzea zen. Ikastea eta guzti nuen pentsatuta (banekien ez nuela egingo, baina, aizu, ni animatzearren zen). Beste behin, gau oso bat galdu dut nire burukerietan. Ez nago ziur hori ona ala txarra den, baina ez dirudi erremedio errazik duenik.

Eta zein xelebrea den gure gorputza, eta batez ere, hor barruan, pentsamenduen jabe den pertsonarentzat. Ez da inoiz erraza zure buruarekin ados jartzea, arazo akademikoak, arazo sentimentalak edo edozein arazo tarteko. Baina ez dezagun galdu gure barnean daukagun gauzarik politena: bizirik amets egiteko ahalmena.

Motxila hartu dut, gaurko klase guztietako liburu guztiak hartu ditut. Historiako proiektua, noski, bukatu gabe utzi dut. Azkenengo aldiz, ikasmahaiaren paretako errotuluari begirada bat eman diot: “One day, or day one”. Nire aukera da, beste 12 orduz bizirik amets egiteko, ala berriz ere, ditudan hamaika mila gogoetek sortutako atsekabeek niregan gainezka egiteko.



Prest.

Oraindik ere, kartelari begira nago. Nire sorbaldan, bapatean, deabrua, ezkerrean, eta aingerua eskuinean. Nire buruan, “One day, or day one”, eta, bitan pentsatu gabe, deabruari ostikoa. Bazen garaia. 12 ordu galdu ditut pentsatzen, besterik gabe. Besterik gabe? Ala burusaioak dira nire munduari buelta eman eta gauzak bide onetik eraman ditzazketen bakarrak? Betagarriren kontzertuan bezala, nire burusaio bakoitza nire bizitzan aplikatzeko zikinean idatzitako abesti bakoitza da. Helburua ahalik eta kontzertu brutalena eskaintzea. Horretarako abestiak garbira pasa eta zuzeneko kontzertu batean eskaini beharra daude. Gauero hausnartzea bai, baina ez du ezertarako balioko horretan utziz gero. Geldirik geratuz gero. Hortaz, hartu motxila, sartu liburuak, koadernoak kalkulagailua, arkatza eta borragoma, baina utzi tokitxo bat zikinean dituzun hausnarketetarako. Atera itzazu etxetik eta ekin iezaiozu zure abestiak garbira pasa, eta ikuslegoari erakusteari.

Kontzertua hasi baino ez da egin.

Unai Zugazua González



